



## **DONOSTIAKO GABONEK SAN TELMO MUSEOKO FATXADAN VIDEOMAPPINGA ESTREINATUKO DUTE**

- *Donostiara Gabonetako espirituaren bisita izango da 6 minutuko iraupena izango duen ikuskizunaren gaia.*
- *Datorren abenduak 27tik , asteartea, urtarrilak 4ra arte, asteazkena, 18:30-21:30 bitartean 30 minutuko emanaldiak eskainiko dira.*
- *«Goazen» telesail arrakastatsuko aktoreak izango dira datorren astearteko 18:30etako lehen emanaldiko gonbidatuak.*

Donostiako Gabonetako kanpainak datorren astetik aurrera San Telmo museoko fatxada nagusian videomapping ikuskizun berri bat estreinatuko du. Donostiaren, Europako Gabonetako Hiriburua den, urte honetako erakargarritasun berri bat da

Proiekzioaren edukia Gabonetako elementu eta ikonografiari buruzkoa izango da, argi eta soinu joko erakargarri baten bitartez modu txundigarrian aurkeztutakoak, eta horrez gain, gure inguruneko, kulturako eta Donostia hiriko elementu propioak azalduko dira.

Garapen Ekonomikoko zinegotzia den Marisol Garmendia adierazi duenez, “urtero, Gabonetako espirituak mundu osotik bidai luze bati ekiten dio, planetako txoko guztietatik bere magia eramanez. Gure hirietara heltzen denean kale eta etxeetan barrena ibiltzen da, pertsonen bihotzetara iristen”.

Garmendiak gaineratu duenez, “bizi dugun jai-izpiritu horrek ez gaitu ahaztarazi behar zailtasun ekonomikoak, familiarrak edo okerragoa dena, gerragatik jasaten ari direnak”.

Videomappingean, mendiak zeharkatzen dituen ikazkinaren, gorritz jantzitako bonatxoiaren eta errege magoen ilusioaren bidez ezagutu ahal izango da Gabonetako espiritu hori. Ikuskizunak historia honen amaiera ezagutzera gonbidatzen gaitu San Telmo Museoko fatxada nagusian emango den videomappingaz gozatuz, aurten 120 betetzen ditu gainera, Donostiako Sustapenak bezala.



## ORDUTEGIA, EMANALDIK ETA SORPRESAK

Ikuskizun honetaz **abenduak 27tik, asteartea, urtarrilak 4ra arte, asteazkena, gozatu ahal izango da, eta emanaldiek ordutegi hau izango dute: 18:30-19:00-19:30-20:00-20:30-21:00 eta 21:30.**

Ikuskizunak ahalik eta iluntasun gehien behar duenez, Museoko leihoak aldi baterako estaliko dira eta inguruko argiak itzaliko dira.

Emanaldi bakoitzaren **iraupena 6 minutukoa da**, urtarrilaren 4koa izan ezik, proiektzioa minutu bat luzatuko baita Errege Magoen etorreragatik. Emanaldien arteko itzarote denbora sintonia batek eta argi jokoek girotuko dute. Datorren astearteko lehen emanaldirako (18:30) «Goazen» ETB telesail arrakastatsuko aktoreak gonbidatu dira.

## LANKIDETZA ETA FINANTZAKETA

Europar Batasunak – Next Generation EU, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak finantzatzen dute ikuskizun hau.